

HERNANIK kronika

2004 urtea
Martxoak 31
Asteazkena
Alea: 1064
www.kronika.net

Jaurlaritzak merkatarientzako asesoria eta laguntza teknikoa ematen du debalde

■ Merkataritzarako Laguntza Teknikorako Kabinetek Hernanin eta Buruntzalde osoan ematen du zerbitzua
■ Hernanin, merkatariek laguntzei buruzko informazioa eskatzen dute, batez ere. ■ ☎ 943-456333.

MERKATARIEK laguntza teknikorako gabinete (MLTK) propio bat dute eskura eta zerbitzua erabat debalde da. Eusko Jaurlaritzak finantzatzen duen zerbitzua da eta merkataritza modernizatu eta indartzea da helburua, merkatarien zuzeneko asesoria eta bitartekoak emanda. MLTKk era askotako informazioa ematen du: komertzio bat zabaltzeko informazioa, bideragarritasun planak aztertu, diru laguntzei buruzko informazioa eta trimitazioa, lokalak edo ekipamendua osatzeko bitartekaritza egin eta abar.

Martxan dauden establezimenduek, berriz, aukera dute beren egoeraren diagnozia egiteko. Era berean, eskura dituzte formazio ikastaroak, web orriak, ingurunearekin lotutako inbertsioak edo teknologia berriak sartzeko laguntzak eta trimitazio lanak egiteko zerbitzua.

MLTKk Kronikari adierazi dionez, batez ere laguntzei buruzko informazioa da Hernaniko merkatariek eskatzen dutena.

Merkataritza Elkarteak
Merkataritzarentzako Laguntza Teknikorako Kabinetek Merkatari Elkarteekin ere lan egiten du eta Hernanin Berriakekin ari da elkarlanean. Merkataritzarako gabineteak Buruntzalde osoan egiten du lan, merkatariek elkarrik ez



Merkatariek nahi duten guztia kontsultatzeko aukera dute Merkataritzarako Gabinetean.

duten herrieta sortzeko bidea egiten ari da: Urnietan, Astigarragan eta Usurbilene, hain zuzen ere.

Merkataritza Mahaia
Orain dela hilabete batzuk Udalak Merkataritza Mahaia osatu zuen herriko merkataritza indartzeko. MLTKk laguntza teknikoa ematen du Mahai horretan eta ari dira zenbait iniziatiibekin lanean. Horietako bat da hutsik dauden lokalen zentsoa egitea: zenbat dauden, non, zer egoeratan eta abar, aurrera begira egin litekeen ikusteko. □

MLTK-EN ZERBITZUAK

Aholkularitza teknikoa

Lan, zerga, alor juridiko, eta merkataritzako aholkularitza. Establezimendu berria zabaldu aurretik informazioa eta aholkularitza.

Diru-laguntzak

Administrazio laguntzen berri eman eta trimitatu.

Merkataritza elkarteak sortzeko laguntza

Merkatarien arteko elkarlana bultzatu.

Prestakuntza

Formazio programen berri eman eta ikastaroak antolatu.

Gestioa planak

Merkatarien kudeaketa planak aztertu eta denden egoeraren diagnozia egin

■ FUTBOLA

Hernani-Urola gaur Zubipen, 19:00etan

HERNANI eta Urolak gaur jokatuko dute atzeratutako ligako partidua Zubipen, 19:00etan. Hernanirentzat beste final bat gehiago izango da, baina, Urola ere ez dago lasai ibiltzeko postuan. Joan den asteburuko emaitzak eta gero, Secoren mutilek azkenbigarren jarraitzen dute, baina, irabazi ezkerro postu bat aurreratuko dute, eta bere aurrean dauden paretsuan jarri.

Hernanik 1-1 berdindu zuen Kopako bigarren partidua HERNANI ondo hasi da Emakumezkoen kopan eta igandean 1-1 berdindu zuen Tolosa liderraren kontra. Datorren asteburuan Ostdarren kontra jokatuko du Hernanik, irabazi beharreko partidua. □

OSASUN ASTEA

Luis Ceballos terapeutak bakardadeaz hitz egingo du

LUIS Ceballos terapeutak bakardadeaz hitz egingo du gaur, Andragoton Osasun Astearen barruan. Bakardadea. Gauza bera al dira gizakia eta pertsona? Horixe da 19:30etan hasiko den hitzaldiaren izenburua. Bihar, osteguna, elikaduraz eta janari transgenikoaz hitz egingo dute Lurdes Sarasola eta Jabier Beloso Otarra Elkarteko kideek. □

MENDIRIZ MENDI

Auñamendira joateko izen ematea

MENDIRIZ Mendik antolatuta asteburu pasatzen da Auñamendi ingurura apirilaren 3 eta 4an, eta bihar da izena emateko azken eguna. Prezia 40 euro da eta baziak ez direnenetat 50. □

Ongintzak etxeeko laguntzak zabaltzea eta 2004rako etxebizitzak sozialak zeini utzi aztertuko ditu gaur, Zuzendaritza bileran

ONGINTZA Patronatuak Zuzendaritza bilera berezia du gaur. Hamar puntuko gai or-

dena du eta horietako bi dira etxeeko laguntza zerbitzua zabaltzea eta 2004rako etxe-

bizitza sozialak adjudikatzea. Era berean, zenbait zerbitzu ematen dituzten enpresei ere

kontrataua luzatzea planteatu da, eta baita Kontrataazio mahaia aldatzea ere. □

SAGARDOTEGIA
iPARRAGIRRE

HERNANIKO SAGARDOA TEL. 943 55 03 28 OSIÑAGA AUZOA HERNANI

Asteazkenetik larunbatera irekita, gauzez. Larunbat eguerdiz ere bai.

GSE

Lan aholkularitza
Fiskala
Kontablea

Tel.: 943 550254
Faxa: 943 335801
Atzieta 51 - behe 20120 Hernani


Barandiaran Lizeoa
BATXILERGO modalitateak

Zientifiko-Teknikoa.
Giza eta Gizarte Zientziak.
Arteak.

ELEANITZA: Batxilergoa euskarak eta ingelesez.
Jarduera irekiak: apirilaren 1ean, 19:00etan

tlf: 943213355, email: barandi02@ikastola.net

Manuel de Lardizabal 26 Donostia.



Mikel Laskurain, Ixak jende artean hasi zuen obra.

330 lagun izan dira Antzerki Zikloan eta 'Euskera sencilloaren manifestoa'k bildu du gehiena

■ Aurrekoan baino jende gutxiago ibili da, eta oraingoan Biteri ez da bete.


UDABERRIKO Antzerki Zikloak ez die antolatzaleei Udazkenekoak bezain gusto gozoa utzi. Asteartetik ostirala 4 obra izan ziren eta denean 330 ikusle izan dira. Berez, Kultura Sailak 3 obra programatu ditu: Galipot taldearen *Euskera sencilloaren manifestoa*, Vaiven Produccionesen *Victor Bechv*, eta Hikaren *Ixa*. Hiru horietaz gain, Horitzmugaren *Globacilación* obra izan zen asteartearen Hirugarren

Mundua eta Pakea GKEaren (Gobernuz Kanpoko Erakunde) ekimenez.

Publiko aldetik begiratuta, *Euskera sencilloaren manifestoa* izan zen arrakastatsuna eta 130 pertsona bildu zituen. Gainerako obrek 100 lagunetik behera bildu zituzten, eta Mikel Laskurainek interpretatutako *Ixak* ere ez zuen antolatzaleek espero zuten erantzunik izan.

Antzerki Zikloaren irizpide

nagusiak bira dira: obren kalitatea eta berritasuna. Kultura sailak aitortu du, berritasun horrek ere bere arriskua duela, oraindik jendearengana gehiegi iritsi gabeko obrak izan litekeelako. Hala ere, Kulturak Kronikari adierazi dio gaia sakonago aztertu beharrekoa dela eta litekeena dela zenbait gauza berplanteatu behar izatea. Hurrengo Antzerki Zikloa Udazkenean izango da. □



Boxeo antolatzaleek esan dute litekeena dela ekaina aldera konbate gehiago jartzea Hernanin.

Boxeoak jende asko bildu zuen. Larunbatean boxeo eta kick boxing konbateak izan ziren Hernanin, 31 urte eta gero. Jacinto Santinen omenezko ekitaldiak publiko aldetik oso erantzun ona izan zuen eta jendeak gozatu egin zuen espektakuloarekin. Antolatzaleak ere gustora gelditu ziren harrerarekin eta zabalik utzi dute konbate gehiago antolatzeko aukera. □



Antxon eta Jose Ignazio bikotearen emanaldia Goiz Eguzkin.

Antxon eta Jose Ignazio bikoteak giro ederra jarri zuen Jubilatu Etxean

■ Joan den ostiralean emanaldia egin zuten eta Goiz Eguzkiko ekitaldi aretoa jendez bete zen.

ANTXON eta Jose Ignazio Duo Komiko Musikalak musika eta txiste emanaldia egin zuen Goiz Eguzki Jubilatu Etxean, ostiralean.

Bikoteak txiste kontari eta kantu kontari osatu zuten beraen ekitaldia, eta publikoak parre algara ederra bota zituen. □



Goiz Eguzkiko ekitaldi aretoa bete egin zen ostiralean.

'Familia eta ikasleen arteko erasoak' hitzaldia bihar Urumea ikastolan

URUMEA ikastolak hitzaldia antolatu du biharko *Familia eta ikasleen arteko erasoak* gaiaren bueltan. Elkano kale-

ko edifizioko liburutegian izango da hitzaldia, bihar osteguna, arratsaldeko 19:00- etan hasita. □

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

FARMAZIAK

- Egunez: Bulnes Florida auzoa ☎ 943 557738
- Gauez: Bulnes Florida auzoa ☎ 943 557738

IRAGARKI MERKEAK

Hernani inguruko jatetxe batean barrarako zerbitzari bat behar dugu. Ibilgailua behar da. Deitu: 943 55 02 54 (astelehenetik-ostiralerla) edo 608 12 07 32

Ifiño Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertsbra, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

Aseguruak **CATALANA OCCIDENTE**

Atzieta ~ 30
Telf ~ 943~332440
Fax ~ 943~556602

Grupo
CATALANA OCCIDENTE
Talde Aseguru Agentzia

Orain Helbide Berrian Gaude!